

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Produktu ezberdinen bilketa egin behar dugunez, gure postua kokatzeko leku aproposena supermerkatu bat izango litzateke. Ondorioz, supermerkatu batekin, gutxienez, harremanetan jartzea beharrezkoa iruditzen zaigu.

Hainbat supermerkatu kontutan hartu ondoren, Olaberrian kokatutako “Carrefour” supermerkatua aukeratu dugu hainbat arrazoiengatik. Lehendabizi, beste batzuekin alderatuta produktuen eskaintza zabalena duela ohartu gara, adibidez: janaria, arropa, jostailuak, etxeko tresnak, liburuak... Horrez gain, kalibre handiko supermerkatu bat denez, jende asko gerturatzen da, eta ondorioz, hornitzaile kopuru handiago lortzeko aukera izango dugu.

Hori dela eta, harremanetan jarriko gara enpresa horrekin, gure postu jartzeko baimena lortzeko asmoz.

Bestalde, gure iragarkia komunikabideetara iristeko, EITB kanalarekin kontaktatzeko intentzioa dugu. Honekin, inguruko herrietako ikusleek gure proiektua ezagutuko dute eta laguntzeko asmoa dutenek gure postuaren kokapena lortuko dute.